



Alkate agurgarria,

Koronabirusak eragindako larrialdi-egoeraren aurrean, Eusko Jaurlaritzak GUZTION ARTEAN **plana** jarri du abian, beren bizilekuan, bakarrik edo bikotekidearekin bizi diren eta familiaren laguntzarik ez duten 70 urtetik gorako pertsonen, mendeko pertsonen edo beste kalteberatasun-egoera batean daudenen (administrazioek deribatuta) oinarritzko premiei erantzungo dieten **elkartasun antolatuko ekimenak sustatzeko eta babesteko**.

GUZTION ARTEAN plana Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren jarraibideen arabera diseinatu da, eta erantzun egokia ziurtatzeko ezinbestez jarraitu beharreko hainbat irizpide biltzen ditu. GUZTION ARTEAN planari buruzko informazioa biltzen duen dokumentu bat eta laguntza behar duten pertsonen zein borondatezko laguntza eskaini nahi dutenei bidali beharreko triptikoa erantsi ditugu.

Funtsezkoa da mugikortasuna mugatzea, eta, horregatik, zerbitzuek behar-beharrezkoak izan behar dute eta familiaren laguntzarik ez duten pertsonen kalteberenei zuzenduta egon behar dute. Gainera, pertsona horien, boluntarioen eta, oro har, komunitatearen osasuna zaintzeko, beharrezkoa da bizileku bakoitzera boluntario bat (edo, salbuespen gisa, bi) baino ez joatea, eta beti pertsona berak izatea.

Horretarako, gutun honek helburu bikoitza du eta bi ekintza bateragarri planteatzen ditu:

Estimada/o Alcalde/sa,

Ante la situación de emergencia por el coronavirus, el Gobierno Vasco pone en marcha un **plan** (GUZTION ARTEAN) **para promover y apoyar iniciativas de solidaridad organizada** que respondan a necesidades básicas de personas mayores de 70 años y/o dependientes, o en otras situaciones de vulnerabilidad (en este caso, derivadas por las administraciones), que residan en sus domicilios, vivan solas o en pareja, y carezcan de apoyo familiar.

GUZTION ARTEAN se ha diseñado bajo las directrices del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y recoge una serie de criterios que es imprescindible adoptar para asegurar una respuesta adecuada. Se adjunta un documento informativo sobre GUZTION ARTEAN y el tríptico a dirigir tanto a las personas que necesiten ayuda como a las que quieran ofrecer su ayuda voluntaria.

Es clave limitar la movilidad y, por eso, los servicios han de ser los estrictamente necesarios y dirigirse a las personas más vulnerables, sin apoyo familiar. Además, preservar su salud, la de las personas voluntarias y la de la comunidad en general requiere limitar el número de personas voluntarias por domicilio a una, o excepcionalmente dos, y que sean siempre las mismas.

Para ello, esta carta persigue un doble objetivo y plantea dos acciones compatibles:



- **Zure laguntza eskatzea sareari buruzko informazioa (eta, zehazki, triptikoa) zabaltzeko**, herritarrak beren premiak planteatzera bultzatzeko, boluntario gisa parte hartzeko aukerari eta baldintzei buruzko informazioa emateko eta, horretarako, Gurutze Gorriak Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan kudeatzen duen call centerrarekin harremanetan jartzeko (945 22 22 22).
- **Udalek helburu horrekin dinamizatzen edo babesten dituzten esku-hartzeak GUZTION ARTEANen irizpide guztiekin** (Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren jarraibideen arabera ezarritakoak) **eta boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 legearekin (eta, bereziki, 1.2 artikuluaarekin, irabazi-asmorik gabeko erakunde baten bitartez bideratzeari dagokionez) bat datozela ziurtatzea.**
- **Solicitar su colaboración, difundiendo la existencia de la red y, en concreto, el tríptico**, así como animando a la ciudadanía a plantear sus necesidades e informándoles sobre la posibilidad y condiciones para participar como voluntarias, poniéndose en contacto con el call center gestionado por Cruz Roja en colaboración con Gobierno Vasco (945 22 22 22).
- **Asegurar que las intervenciones que, con este fin, puedan estar dinamizando o apoyando los Ayuntamientos, se alinean con la totalidad de los criterios de GUZTION ARTEAN**, establecidos bajo las directrices del Departamento de Salud del Gobierno Vasco, **y con la ley 17/1998, de 25 de junio del voluntariado y, en particular, con su artículo 1.2**, articulándose a través de una organización no lucrativa.

Horrelako ekimenen bat baduzue, bidaliezaguzu, labur-labur, horri buruzko informazioa ss-gz@euskadi.eus helbide elektronikora, eta Osasun Sailak etxeetan laguntzeko boluntarioentzat ezarri dituen eta boluntarioek triptikoan ezarritako gainerako irizpideekin batera ezinbestez ezagutu behar dituzten jarraibide espezifikokoak bidaliko dizkizuegu adierazten diguzuen helbide elektronikora.

Besterik gabe, agur eta eskerrik asko zure laguntzagatik; zure esanetara naukazu,

Si cuentan con una iniciativa de este tipo, infórmenos brevemente sobre ella en el siguiente correo ss-gz@euskadi.eus y les remitiremos, a la dirección de correo electrónico que nos indiquen, las pautas específicas para personas voluntarias de apoyo a domicilio, establecidas también por el Departamento de Salud, y que es imprescindible asegurar que el voluntariado conoce, junto al resto de criterios establecidos en el tríptico.

Sin otro particular, me despido agradeciéndole su colaboración y quedo a su disposición,

Izp./Fdo: Lide **AMILIBIA BERGARETXE**
Gizarte Politiketako Sailburuordea
Viceconsejera de Políticas Sociales



INFORMAZIO GEHIGARRIA

- Call centerrak laguntza-eskaerak eta boluntario gisa parte hartu nahi duten pertsonen proposamenak zentralizatzen ditu eta pertsona horiek Gurutze Gorrira edo Caritasera bideratzen ditu.

Biak esperientzia handiko erakundeak dira (baita larrialdi-egoeretan ere), boluntario kopuru handia dute Euskadi osoan, kudeaketa-ahalmen handia dute, eta GUZTION ARTEANen irizpide guztietara egokituko direla bermatuko dute.

Bi erakunde horiek beren boluntarioen parte-hartzea bideratuko dute, eta boluntario horiei Euskadiko hirugarren sektore sozialeko beste erakunde batzuetako boluntarioak eta call centerrera deitzen duten, beharrezkoa den profila duten eta parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiak gehituko zaizkie.

- Zure ustez beste kalteberatasun-egoeretan daudelako arreta behar duten pertsonak deribatzeke, Caritas Bizkaia 636564922, Caritas Gipuzkoa 943440744, Caritas Araba 945232850 edo call centerraren bitartez Gurutze Gorriarekin 945 222 222 harremanetan jar zaitezke, administrazioaren deribazio bat dela adieraziz.
- Elikagaien eta premia biziko beste produktu batzuen garraioa Gurutze Gorriak egingo du Euskadiko lurralde osoan (landa-eremuak barne), identifikatutako ibilgailuetan, higie-baldintza egokiekin, hotz-katea bermatuz, erantzukizun zibileko aseguruarekin, istripu-aseguruarekin eta egungo egoerarako estaldurarekin (ibilgailuak baimenduko dira).

Beste baliabide batzuk gaitu behar badira, abian jarriko ditugu.

INFORMACIÓN ADICIONAL

- El call center centraliza las peticiones de ayuda y las propuestas de personas interesadas en participar como voluntarias, dirigiéndolas a la propia Cruz Roja o a Caritas.

Ambas son organizaciones con experiencia, también en situaciones de emergencia, un número importante de personas voluntarias en toda Euskadi y capacidad de gestión, garantizando el ajuste a todos los criterios de GUZTION ARTEAN.

Ambas canalizarán la participación del voluntariado de la organización, al que se sumará el de otras organizaciones del Tercer Sector Social de Euskadi, así como la de todas las personas que llamen al Call Center, se ajusten al perfil y cumplan las condiciones de participación.

- Para derivar a personas que a su juicio requieran una atención por encontrarse en otras situaciones de vulnerabilidad pueden ponerse en contacto con Caritas Bizkaia 636564922, Caritas Gipuzkoa 943440744, Caritas Araba 945232850 o con Cruz Roja, a través del call center 945 222 222 indicando que se trata de una derivación de la administración.
- El transporte de alimentos y otros productos de primera necesidad se realizará por la Cruz Roja, en todo el territorio de Euskadi, incluidas zonas rurales, en vehículos identificados, con medidas higiénicas adecuadas, garantizando la cadena de frío y con seguro de responsabilidad civil y accidentes, con cobertura en la situación actual (se autorizará a los vehículos).

Si fuera necesario habilitar otros recursos, los pondríamos en marcha.